

BilboShop

B I L B O B I Z I



DIRU ITURRIAK






BilboShop

B I L B O B I Z I

Diru sarreren banaketa

Gure irabazi iturriak arlo askotatik datozkigu. Honako hauek dira gure diru iturriak eta gure sarreren totaletan duten partaidetza:

- **Erabilera prima:** Gure webgunean harpidetutako denden produktuak jarriko ditugu eta marketing arloan laguntza emango diegu. Horren truke erabilera prima edo hileko kuota ordainduko dute baita hasierako kuota bat ere, gure tarifen arabera (1. Eranskina). Diru iturri honek, gure sarreren %50a suposatuko du, gutxi gora behera.
- **Prima:** Gure webgunearen bitartez saltzen dituzten produktuetatik komisio zehatz bat ordainduko digute dendek, gure tarifetan zehaztutako prezio finko eta dinamikoen bitartez (2. Eranskina). Ez badute ezer saltzen, ez dute honelako komisiorik ordaindu beharko. Diru iturri honek, gure sarreren %30a suposatuko du, gutxi gora behera.
- **Publizitatea:** BilboShop-ekin zerikusirik ez duten enpresek haien produktuak edota zerbitzuak gure plataforman erakutsi nahi badituzte ordaindu beharko dute. Harpidetutako dendek, baita, haien ikusgarritasuna gure orrialdean areagotzeko eta hobetzeko aukera izango dute, eta ordaindutako diruaren arabera gure plataformaren lehen orrialdean eta gomendatutako produktuen zerrendan agertuko dira. Diru iturri honek, gure sarreren %10a suposatuko du, gutxi gora behera.
- **Bidalketa zerbitzuak:** Alde batetik, Bilbo helmugatzat duten bidalketak guk geuk burutuko ditugu gure motorra erabiliz; eta zerbitzu horiengatik gure bidalketa tarifen arabera kobratuko diogu erosleari. Bilbotik kanpora zuzendutako bidalketetan, beste logistika-enpresa batek egingo du bidalketa, eta haiek emandako prezioaren eta guk emandako prezioaren arteko aldea (hamarrekoak biribilduz) lortuko dugu. (3. Eranskina) Diru iturri honek, gure sarreren %10a suposatuko du, gutxi gora behera.





BilboShop

B I L B O B I Z I

Gure tarifen funtzionamendua

Alde batetik zerbitzuen truke kuota finkoak kobratzen ditugu, bai hilero bai hasierako kuota eran. Beste aldetik gure plataformaren bidez egiten den salmenta bakoitzagatik komisio batzuk kobratzen dizkiogu saltzaileari. Salmenta bakoitzagatik komisio horiek honela eratzten dira: Parte finko bat + parte aldakor bat. Hiru fakturazio tarte zehaztu ditugu, eta hiru tarte horietako bakoitzarentzat salmenta bakoitzagatik komisio finko bat zehaztu dugu, 0.80€ eta 1.20€ artekoa, eta komisio aldakor bat, salmentaren zenbatekoaren %5 - %6.5 artekoa. Denda solidarioek eta irabazi asmorik gabeko dendentzat tarifa finko eta aldakor murriztuak izango dituzte.

- Tarifak zehazteko mugatu ditugun hiru fakturazio tarteen urte bakoitzeko fakturatutako dirua, Eustat (Euskal Estatistika Erakundea) eta Observatorio Económico de Bilbao-ren informazioaz baliatuz burutu dugu ikerketa bat euskal merkataritza txikien fakturazioaren inguruan.

Hasierako inbertsioaren berreskurapena


Gure proiektuaren hasierako inbertsioa ez da oso altua izango, baina hori berreskuratzeko bideratuta egongo diren diru sarrerak nagusiki dendei kobratutako hileko eta hasierako kuotak izango dira, berez, gure egitasmoaren diru sarrera nagusiak direlako.



1. Eranskina

Kontzeptua	Hasiera kuota	Hileko kuota
Gure plataformaren bidezko salmenta	50€	10€
Marketing aholkularitza	- - -	15€
Web orrialde pertsonalizatua	Basic: 15€	7€
	Pro: 25€	
	Elite: 30€	
Osagarriak		
Logotipo baten diseinua	Basikoa	30€ Ordainketa bakarra
	Aurreratua	90€ Ordainketa bakarra

Publizitate materialen diseinua (Txartelak, panfletoak...)	Diseinatutako elementu bakoitzeko ordainketa	20€ Diseinu oso aurreratua edo lan handia behar izatekotan kasu berezi bezala ordainduko da aurretiaz adostuz.
Publizitate materialen diseinu eta inprimeketa	Kopuruaren araberakoa	Diseinu tarifak + inprentaren araberako inprimaketa gastuak



2. Eranskina

Fakturazio tartea (Urtero)	Komisio finkoa	Komisio aldakorra
0€ - 50.000€	1,20€	6,5%
50.000€ - 100.000€	1,00€	5,5%
100.000€ +	0,80€	5%
Denda solidarioak edo irabazi asmorik gabekoak	0,50€	3%

3. Eranskina

Helbidea	Estandarra	24 Ordu	Egun berekoa
Bilbo*	3€	4,90€	7,50€
Bilbo ondokoak	4,90 	6€ 	****
Dendan jaso edo gure biltegian	****	****	0€
Espainia	4€ Correos ofizian batzeko 5€ Etxera bidalita 	6€ 	****
Hapiick puntu batera	2€ 	****	****
Atzerrira (Europa), Kanariar Uharteetara, Ceuta eta Melilla.**	20€ 	****	****

Atzerrira (AEB)**	30€ 	****	****
 Urteko kuota baten truke, bidalketa mugagabeak***	30€		
<p><i>*BilboShop-ek berak egindako banaketa zerbitzua.</i></p> <p><i>**Hemen ageri ez diren herrialdeetara bidalketa behar izatekotan, erosleak antolatuko du eta ordainduko du bidalketa prozesua.</i></p> <p><i>***Beti ere BilboShop-ek erabilera apropos bezala kontsideratzen duen bidalketa kopuruak errespetatuz. Espainia penintsularrera bakarrik (AEB, Europar Batasuna, Kanariar uharteak, Ceuta eta Melilla zerbitzu honen kanpo gelditzen dira.)</i></p>			

